

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

509

IRAGARKIA, Ingurumen Administrazioko zuzendariarena, zeinaren bidez jendurrean jartzen baitira PHS Serkonten S.A.U. enpresak aurkeztu dituen proiektu teknikoa eta ingurumen-inpaktuaren azterketa, hondakin arriskutsuak eta ez-arriskutsuak kudeatzeko jarduera egiteko Arrigorriagan dagoen Atxukarroko industrialdean, 2. zenbakian, eta Euskal Autonomia Erkidegoan ingurumen-baimen bakarra lortzeko.

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legeak ingurumen-baimen bakarraren araubidea aplikatu beharra ezartzen du I.B eranskinean jasotako jardueraren bat gartzten duten titulartasun publiko edo pribatuko jarduerak eta instalazioak ustiatzen badira.

Ingurumen-baimen bakarraren bitartez, egintza bakarrean eta Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoak aurretiaz emandako prozedura administratibo bakarrean bateratzen dira hondakinak ekoizteko eta kudeatzeko baimenak, kolektorera, jabari publiko hidraulikora eta itsasoko eta lehorreko jabari publikora eginiko isurien baimenak eta atmosferara eginiko isurpenen baimenak, eta dagozkien isurpenen mugako balioak ezarriko dira, aplika daitekeen arloko araudiak xedaturikoaren arabera.

Arauk 36. artikuluan ezartzen duenez, eskaera aurkeztu ondoren eta aurkeztutako dokumentazioa osorik dagoela ikusi ondoren, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Eusko Jaurlaritzako egoitza elektronikoa iragarrita, instalazioaren edo jardueraren proiektua jendurrean jarriko da hogeita hamar egun baliodunetarako, alegazioak aurkez daitezten.

Baina zabalkunde handiagoa emateko, iragarki horren berri emango zaio ustiatzeko jarduera edo instalazioa kokatuta dagoen lurraldeko udalari, toki-erakundeak bere ediktu-oholean ikusgai jar dezan.

Adierazitako guztiagatik, AAU01082_SOL_2023_001 espedientea jendurrean jarriko da hogeita hamar egun balioduneko epean, iragarki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, egoki deritzeten alegazioak eta oharrak egin ditzaten.

Jendurreko izapidean jarriko den instalazio-dokumentazioa Eusko Jaurlaritzako egoitza elektronikoko iragarki-taula elektronikoa (<https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/>) argitaratuko da, jendeak eskura izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urtarrilaren 17a.

Ingurumen Administrazioko zuzendaria,
NICOLAS GARCIA-BORREGUERO URIBE.

2025eko urtarrilaren 31, ostirala

ERANSKINA

Espediente zk.	Instalazioa	Udalerria
AAU01082_SOL_2023_001	PHS Serkonten, S.A.U.	Arrigorriaga